



Akelarre. Nestor Barrenetxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN




**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

berria  
MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

## ETasio Erkizia

«NORTASUN  
EUSKALDUN ETA  
ABERTZALEAREKIN  
EZ NAIZ ARROTZ  
SENTITZEN EUSKAL  
HERRIKO INONGO  
LEKUAN»



1999ko urria. 15. zkia. 125 pzt.

Lege gordailua: BI-85-98

Begoñazpi ikastola ↔ Otxarkoagako merkadiloa ↔ Panpotx ↔ ...



Iñaki Herrererak utzitako Estanislao Las Herasen argazkia



Anton Larrazabalek utzitako José Félix de Etxebarriaren argazkia

## BEGOÑAKO UDALETXEAREN ETA PLAZAREN ATZENENGO MOMENTUAK

Beheko argazkia 1957ko otsailekoa da. Bertan Udaletxea (Errepublikako etxea) eta plaza zaharra ikusten dira eta baita honeek botateko hasitako pres-taketak, besteak beste arbolak botata ikusten dira.

Goiko argazkia barriz, 1959-60 urteetakoa da, lanak aurreratu samar dagoz. Gaur egungo Zumalakarregi Etorbideko Juantxu taberna ingurutik atarata dago argazkia. Hor ikusten dira Begoñako eleiza, tunela amaituta eta Zumalakarregi Etorbideko hondeaketa eginda eta gurutzatzen duen Zabalbide kalea, osorik ikusten da oraindino.

**ARGITARATZAILEA:**  
Batana Batu Kultur Elkartea

**ERREDAKZIOA:**  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa: 94 473 54 48  
e - p o s t a . :  
berton@mail.com

**ZUZENDARIA:**  
Aitziber Laskibar

**ERREDAKZIOA:**  
Unai Cuevas, Arrate Diez, Urtzi Urrutikoetxea, Irune Berro

**ARGAZKIAK:**  
Iñigo Azkona

**DISEINUA ETA MAKE-TAZIOA:**  
Iñaki Berastegi, Joseba Barreneheta, Benito Fiz

**KOLABORATZAILEAK:**  
Jaione Letamendia, Itxaso Perez, Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Edurne Basozabal, Idoja Irastorza, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola, Igor Zorrozueta, Iñaki Aurrekoetxea, Joseba Zelaia.

**ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:**  
Koldo Urrutikoetxea, Joxe Garcia

**LEGE GORDAILUA:**  
Bi-85-98

**ALE KOPURUA:**  
1.000

# A U R K I B I D E A



▼ Betikoak .....	2	▼ Mahatsberriak .....	17
▼ Iritzia .....	4	▼ Erreportaia, Udalekuak .....	20
▼ Errezetak .....	5	▼ Behetik gora, Begoñazpi Ikastola .....	22
▼ Panpotx Kultur Elkartea .....	6	▼ Bota ba, Kirolak .....	24
▼ Hileko argazkia .....	7	▼ Bideak, Artelana Erakusgai .....	26
▼ Begoña eta euskerea .....	8	▼ Begizorrotza, Komikia .....	28
▼ Berton dugu! Otxarkoagako merkadiloa ..	10	▼ Bidean gora, Mendi Ibilbideak .....	29
▼ Bakarka, Tasio Erkizia .....	12	▼ Badatoz, Agenda eta horoskopoa .....	30
▼ Inkesta, Bertoko garagardoa .....	16	▼ Bertsotan .....	31

**B**erton da *Berton* atzera, kostatu jaku udako bueltie baie hamen goaz. Udie lehen zer zan ta orain zer dan! Lehen bedarra batu, soloak jagon ta beharra ta beharra baino ez zegotan. Oraingoan, barriz, hamen ez dau inok ezebe-re egitten. Ezta Bertonekoak bere. Ta ganera, amen inok ez badau ezer egitten geu bere ez gara tontoak ixengo ta ez gara hasiko biarren, ezta? Ta ibili naz Berton leiduten, ta ikusi dot inkestie dakarrela jentieri preguntetan aber Bertoko zerbiez gustetan bajako. Ta geidxenak baietz esan daurie. Baie Bertoko ixena eukingo dau, ta Arratia

partean eingo daurie, baie, bertoko-bertokoa, Bertan da gero! Ta ganera, edateko kontuetan hasten bagara, aber noz akordaten jatzuen «bertoko» txakolinegaz. Akordau, geidxen baten aber baten batek topetan badau solotxo bat Begoña partean ta parratxo bat ipinten badau, ta ostera bere hasten bada txakoline egitten, ze orain modan daoz bertoko edanak, ta Begoñeko txakolina beran sasoi en ixen zan famoso en munduentero, gero! Saldu ezker negozioseguroa da. Bertokoena, Bertan lez.

Firmaute: *Albertoko*

Urteberri eguna urrun dugu dagoeneko, bederatzi hilabete-eta handik hona. 2000. urte majikora oraindikarren hiru-lau hilabetexoko kaminoa dugu. Baina solstizioak gora-behera, urtea oraintxe hasi delakoa daukagu askok, urteberri eguna barik, geure urtarrila abuztu zaharrak dakrarsku, eta orain gabiltza ekinean asko eta asko, planak egiten, geroan pentsatzen eta lehenengo pausak emoten ekain-uztailean akabako zaigun urte natural-naturalari begira, mende eta urtemugak alde batera utzirik.

Euskara eta euskaltzeleontzat ere oraintxe hasi da beste urte bat, eta hemen gabiltza, urtebeteko ibilaldi honetarako iazko ibililaditik geratzen zaigun bidea abiatzen, edo-eta bide berriak urratzen. Eta pentsatzen, hauxe da ta gerokak ondo pentsatzeko sasoi.

Gazi-gozo asko izan ditugu orain arte, baina aurrera goaz (seinale gozoak gaziak baino gehiago izan direla). Hemen dugu Berton bueltan, han ditugu umeak eskola-ikastoletan, han ikasleak euskaltegietan matrikula-agiriak betetzen, hor euskaltzale taldeak eztabaidan eta beharrea, han-hemen euskaltzaleak buruari eragiten....

Eta zenbat gabiltza bide honetan? Egin dagigun errepassoa:

Eskola mundua da euskalgintza jende gehien mugitzen dituen, D eredia Mahatserriko eskola publiko gehienetan dugu. Hortik aparte, ikastola pribatu bi ditugu: Kirikiño eta Begoñazpi. Hamaika ume euskarazko hezkuntza hartzen, hemendik urte batzuetara gazte gutxi izango ditugu erdaldun huts. Euskararen ezagutza bermatzeko tresna inportantea duda barik.

Helduen euskalduntze alfabetatzearen segituko dugu. Euskalgintzaren esparru honek pisu itzela du gurean, Santutxuko AEKn eta Troka euskaltegian 1000 ikasle baino gehiago batuko dira aurten ere iazko kopuruak mantentzen badira, eta halaxe izango dela dirudi. Aurten matrikulatuko direnek zein euskaltegi hauetatik euren historian zehar igaro diren guztiak, nahiz beste euskaltegi, akademia edo klase partikularretan nahiz euren kontura ikasten dutenak ere kontatuta Mahatserrian euskara jakiteko borondatea badela esan daiteke batere erreparo barik. Euskara jakiteko gogoia eta euskararekiko jarrera positiboa ere bada, zaila baita sinestea jende guztiak euskara asignatura aprobatarren edo lana lortzearen soil-soilik ikasten duena, edo euskaltegiara disgustura joaten direla behintzat. Beste kontu bat dugu zenbatek lortzen duten euskaraz bizitzako jardunean ibiltzeko gaitasun minimoa, baina hori euskaltegiak zein euskaltzale guztiok egin behar dugun hausnarketa da.

Izan ere, euskara gure artean, gure bizimoduan eta gure auzo bizitzaren arlo guztietan normaltzeko (eta ez normalizatzeko bakarrik, mahatserriar bat aspaldi ohartu zen bezala) orduan ditugu arazo gehienak, euskararen ezagutza zabaltzeko Mahatserrian duela hainbat urtetik hona egin den lan eskergaren ondoren (bihoakie gure omenalditxo horretan jardun duten guztiei) ez dugu oraindik lortu bertoko euskaldun eta euskaltzaleok merezi dugun presentzia minimorik. Erakunde eta talde batzuk dabiltza horretan, baina gehienak makal eta norabidea ondo zehaztu ezinik.

Euskara talde bik funtzionatzen dute gure inguruan: Asapala Kultur Elkarte Santutxu inguruan eta Mahatserri Euskara Taldea Urribarrin. Otxarkoagako Euskal Txokoa zen hirugarrenak ez du funtzionatzen duela urtebetegingurutik. Hauxe gain, arlo espezifikokoetan diharduten erakundeak ditugu: Santutxuko bertso eskola, Santutxuko AEKren mintza-taldea eta Santutxuko Euskal Herrian Euskaraz. Bestalde, ezin dugu ahaztu (baina nor edo nor ahaztuko dugu seguruenik, barkatu beraz) bestelako erakunde edo taldeetan egin diren ahalegin normalizatzaileak: Santutxuko Jai Batzordea, Bagabiltza....

Hauxe da gurean euskalgintzak duen panoramaren gainbegirada, eta artikulu honek gehien bat zuei horren berri laburra ematea izan du helburu, euskaltzaleok jakin dagizuen nora jo zeuen kezak eta gogoak plazaratzeko, eta era berean, Berton aldizkari hau aprobetxatu gura izan dugu honetan izan ditzakezen zer esan guztiak eskatzeko, zeren, Berton ez dugu ahaztu, eta komeni da guztiok ere ez ahaztea, elkar topatzeko tresna ezin hobea da-eta.

## hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_

Sinadura



## Limoï moussa

### Osagaiak:

- Limoizko 5 yogur
- 2 limoi
- Esne kondentsatua, 370 gramo inguruko pote 1




Sarritan postre gozo bat egin nahian ibiltzen gara, baina egitea erraza dela esaten diguten arren, gehienetan labea erabili behar dela, osagai arraroak behar ditugula..., eta azkenean alperkeriagatik edo, kostatu egiten zaigu postre gozo hori egiten. Gaurkoa aldiz, oso erraz, simple eta gozoa da.

### NOLA EGIN:

Bi limoien zuku atera eta ontzi batean sartu. Yogurtak eta esne kondentsatua ere ontzi berean sartu, eta dena batidorarekin irabiatu. Ondo nahastua dagoenean, hozkailuan sartu, fresko jatekoa baita. Jateko orduan, katiluetan zerbitu, koilaratxoekin jatekoa da eta. Ikusiko duzu zeinen postre erraza den bai egiteko eta baita jateko ere.

On egin!



# PANPOTX KULTUR ELKARTEA

A  
T  
U  
G  
U  
R  
E  
R  
A



## ↻ Itxaso Perez


Denbora gutxi daramate elkarte hau osatzen duten bost kidek izen honekin, baina lanean urte askotxo jada; esperientzia handia dute dagoeneko. Nondik atera dira? Zurbaranbarri auzoan sortu zen Hortzmuga hankapalu taldeak. Hasiera batean Hortzmugak animazio ekitaldietan eta ikastetxeetarako tailerrak eta heziketa gaietan ziharduen, taldean jende kopuru handia mugituz. Baina momentu batean hau dena gehiegizkoa egin, eta kale ekitaldietan soilik aritzea erabaki zuten. Beste arloa hankapalu taldearekin lan egiten zuten begiraleei utzi, eta horiek elkarte bat sortu zuten. Hor sortzen da Panpotx taldea. Kide guztiak ez dira Zurbaranbarrikoak; Abadinokoa, Mundakakoa eta Santutxukoa ere bada-go.

Euren helburuak oso argiak dira: Tailerren eta jolasen bitartez aisialdian hezitzea (eta oondo pasatzea) bata, eta euskararen garapena eta sustapena, bestea. Taldearen egituraketa batzarretan oinarritzen da. Dena dela, une honetan euren nagusi eta langile diren arren, denborak aurrera egin ahala jende gehiagori lana ematea espero dute, era zuzenean edo ez. Honi buruz gauza bat argi utzi nahi dute: Euren lana helburuetan oinarritzen dutela, eta ez emaitza ekonomikoetan; helburuek lehentasuna dute hain zuzen. Garrantzitsuagoa da euren ustez bitarteko ekonomikorik ez

duen ume edo gazte batek jardura hauek egin ahal izatea, egin barik geratzea baino. Izan ere, gaur egun bitarteko ekonomiko txikiak dauden zonaldeetan lan egiten ari dira (Masustegi, Camacho I. P., Gallego Gorria I. P., ...).

Bilbon batez ere, eta Bizkaian mugitzen diren arren Euskal Herri osoa dute lan esparrua; duela gutxi Beasaingo jaietan tailerrak burutu dituzte. Ikastetxeetan, udal ezberdinentzat, ... lan egiten dute tailerrak, jinkanak, jolasak, iharduera bereziak, gaztelu puzgarriak, musika ekitaldiak, kalejirak, ... eginez. Ez dira aisialdiko taldea. Halere, ahalik eta haur zein gazte kopururik handiena jolasaren eta tailerren bitartez hezitzea gura dute. Baita, euren lanaren bidez, euskalduntze prozesuan ekarpen txikia egitea ere.

Burutzen duten lana gero eta era profesionalago batean egitea bilatzen dute, denak horretarako formazioa daukate eta. Inork haur edota gazteentzako jairik, edota ikastetxeren batean eskolaz kanpoko ekintzarik antolatu nahi badu, Panpotx Taldeari dei diezaiokie. (Harremanetarako telefonoa: BEA, 606-52 10 17).



## HIRITAR EZEZAGUNA

Estatistika Bulegoak aurkitu zuen Ofizialtasunarekin arazorik ez duten horietakoa, Eta bere portaerari buruzko txosten oro bat dator, Modaz pasatako hitzaren zentzurik modernoenean, santua zen, Egin zuen guztiaz Komunitate Garaiena zerbitzatu baitzuen, Guda garaian ezik, erretiratu zen arte Lan egin zuen faktorian eta ez zuten inoiz bota, Bete egin zituen nagusien gogoak, Fudge Motors Inc. Ez zen eskirol edo arraro bere ikuspuntuetan, Sindikatuko txostenetan zorrak pagatzen zituela zioen, (Guk sindikatuan bildutako txostenen arabera oro artez zeukan). Izan ere, gure Gizarte-Psikologia ikertzaileek aurkitu dute, Entzutea zeukala eta poteatzea laket zitzaiola. Kazetaritza ziur da egunero erosten zuela egunkaria Eta iragarkien aurreko erreakzioak normalizat jo daitezke. Bere izenpeko polizek erabat aseguratuta zegoela frogatu dute, Eta Osasun-txartelak eritexean egon zela baina osatuta irten. Ekoizpen-Sailak nola Goi-Mailako Bizitzak Epekako-Ordainketaren zale zela adierazi dute, Alegiaz ere, Gizon Modernoa izateko beharrezko guztia zuen, Fonografoa, irratia, autoa eta hozkailua. Gure Iritzi Publikoko txostenak urte sasoi bakoitzeko Iritzi egokiak sostengatzen zituelako kontent dira; Bake garaian, bake zale; guda garaian, hara joan zen. Ezkondu eta bost umez ugaldtu zuen biztanlegoa, Genetistek diotenez kopuru egokia bere belaunaldiko guraso batentzat. Irakasleenez, ez zen umeen heziketan inoiz sartu. Aske ote zen? Zoriontsu? Galdera absurdoak: Zerbait oker izan balitz, jakinaren gainean geundekeen.

W.H. Auden  
itzulpena: Juanjo Olasagarre  
Poema antologia liburutik hartuta (Susa. 1994)

# Begoña eta Euskerea

⇒ E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

## BEGOÑAN EGONEKO BASERRIAK ( IV )

N  
E  
R  
A  
N  
E  
R  
A  
N  
E  
R  
A  
N



**MENDIETA BASERRIA EDO TXOTXA**  
Begoñazpi ikastolaren ondoan egoan.

**ARRIOLA BASERRIA**

Gaur egun Gabriel Aresti kalea dagoan tokian egoan, Aldape baserriaren ondoan.

**MANDARAS BASERRIA**

Gaur egun Gabriel Aresti kalean, " Kirikiño " ikastolaren patioa dagoan tokian egoan.

**ANDRESA TXAKOLINDEGIA**

Otxarkoagako bidean, beherantz joanda egoan baserria hau.



**ALDATXAGANA BASERRIA**

Otxarkoagarako bidea hartuz, jeisten hasi eta bereala egoan baserri hau. Bertan, "Matxako", Adela " La Pescatera " eta " Gution " bizi izan zirean.



**BAILARIN BASERRIA**

Gaur egun garaizar etxalden egoan, pilotalekua eta garagea dauden tokian.

**ERREKAKOGOIKOA BASERRIA**

Errekako bideari jarraituz, aldapa bat igonda, hantxe egoan baserri haundi eta zahar hau.Familia bi bizi zirean: Goiri eta Bazterrika.



**GAZTELUITURRI ETXEZARRA**


Aurrera jarraituz eta eskumarantz egoan baserri hau.Bertan bizi zirean Zarateren izebak.

**UGARTE BURU**

Garate bidean, Vera Cruz ikastetxea dagoan tokian egoan.Oruerena zan.

**ELORDUI ENEA BASERRIA**

Vera Cruz ikastetxearen aurrean egoan.Etxebizitza berriak eraikitzeko bota dabe orain dela hilabete batzuk. Elordui familia bizi izan zan bertan.



**MARTIN ARAKISTAIN BASERRIA**  
Etxezarraren aurrez aurre egoan.

**PALACIOS ETA PRIETOREN BASERRIA**

Elordui enea baserriaren alboan egoan.Familia bi bizi zirean: Palacios eta Prieto. Azken hauek Gailegoak zirean.Baserria hau ere, orain dela gutxi bota dabe.

**MINIÑO BASERRIA**

Gaur egun Otxarkoaga plazan eliza dagoan tokian egoan.

**SANTI TXAKOLINDEGIA**

Pixka bat aurrerago baina ezkerraldean egoan baserri-txakolindegia hau.Maguregi bizi izan zan bertan.

**EMETERIO GARDEAZABAL TXAKOLINDEGIA**

Gaur egun Ondarroa kalea dagoan lekuan egoan. Filo eta Gardezabal bizi izan zirean bertan.



E  
G  
O  
N  
E  
R  
A  
N  
E  
R  
A  
N  
E  
R  
A  
N

# «DENA MERKE»



Unai Cuevas

Asteazkenetan Txurdinagan eta igandeetan Boluetan, Mahatserriko merkatu txikietan hainbat jende biltzen da erosketa merkeak egin nahirik. Bi egun hauetarako saltokiak prestatu eta saltzaile bakoitzak ahal duen merkantzia onena saltzen saiatzen da. Bitartean, erosleek eurei gehien komeni zaiena eta preziorik merkeenean bilatzea dute helburu.

Bertonekook, Otxarkoaga-Txurdinagako merkatura hurbildu ginen, Julian Gayarre kalean kokatutako saltokiak zer eskaintzen ziguten ikusteko asmoz. Eta era berean, zer ikusi genuen azaltzeko asmoz.

Nahiz eta kalean kokatu, merkatu txikiak ez dira bat-batean eta edonola jarritako sal-erosketa guneak. Aurretiko eta ondorengo lana izaten dute eta behar bezala araututa daude. Egiaztatu ahal izan genuen bezala, saltoki bakoitzak bere lizentzia behar du salmentak egin ahal izateko. Hauetan, saltokiaren zehaztasunak aipatzen dira eta Bilboko Udalaren baimena adierazten duen sinadura ikus daiteke.

Udaltzainek ere, lana izaten dute merkatu egunetan trafikoa erregulatuz. Eta beste batzuetan emergentzia kasuak ere zelan edo halan gainditu behar dituzte.

Honen adibide gisa gure ibilalditxoa egin genueneko istripua dugu. Kotxe batek neskatala bat harrapatu zuen eta udaltzainek parte eman behar izan zuten, gertatutakoaren ahalik eta xehetasun handienak emanik.

Istripuaren gora-beherak ikusten genituen momentuan tipo bat hurbildu zitzaigun aurpegi ez oso onarekin: «Zer egiten duzue?» eta «Nongoak zarete?» galdetu zigun. Guk, «Bertonekoak gara, Mahatserriko aldizkarikoak» erantzun genion. Itaunketa gainditu ondoren, jendetzaren artean murgildu ginen anbulantziaren sirena-hotsa entzuten genuen bitartean.

Saltzaile gehienak ijitoak izaten dira eta bakoitzak persuaditzeko era, teknika eta esaldi ezberdinak erabiltzen ditu. Batek, emakumeengana zuzentzen zituen bere oihuak : «Ikutzen uzten dut», «merke, merke» behin eta berriz errepikatzen zuen. Beste batek : «500 pezetatatan ditut», «500 pezetatatan ematen ditut».

Kartelak ere elementu erakargarri gisa erabiltzen dira eta denetarik irakur zitekeen : beherapenak, oferta (3 galtzerdi pare 500 pzta), kamisetak markak 1000pzta

**Saltoki bakoitzak bere lizentzia behar du**

... Eta nola ez, merkantziak ere era eta kolore ezberdinetakoak izan ohi dira salerosketen ohian txiki hauetan : izarak, ohialak, poltsak, zapatak, galtzerdiak, sukaldeko tresneria ... Hori bai, hainbat aldiz entzun ahal izan genuen bezala : dena merke.

**Saltzaile bakoitzak esaldi ezberdinak erabiltzen ditu persuaditzeko : «ikutzen uzten dut», «merke, merke»...**

Musikak ere badu bere lekua. Musika saltokietan, musika espainiarra entzuten zen batez ere, bacalao musikarekin batera; bi hauek, merkatu txikiaren soinu banda osatzen zuten.

Era honetako merkaturak salmenta mugikorraren zentrua izanik, ezin falta loteria saltzailea. Honek, ezin ofertarik ezta beherapenik eskaini; ezin «dena merke» saldu.



Erosi aurretik aukera egokia egin behar da.

**Saltzaile gehienak ijitoak izten dira**

Komertzio gune hauetan, adin eta klase guztietako jendea biltzen da. Hauen artean umeak ezin falta. Umeek bazuten bere txokoa txoriak eta arrainak saltzen ziren saltokiaren parean. Bertan, euren aita-ama edota aiton-amonari animaliatxo bat erosteko saltzaileek baino persuasio indartsuagoa eragiten zieten. Era honetako merkatuak, gauza merkeen merkatuak bezala defini daitezke. Merkatu txiki eta merkeak. Guk, nahiz eta merkantzia merkeak ikusi eta euren bizitza propioa eta berezia ikusi ez ginen erosketaren tentaldian erori. Gu lan egitera joan ginen, Bertan ateratzera. Eta gainera merke-merke.



Saltzaileek euren lizentzia agerian utzi behar dute.

**PRESOAK KALERA AMNISTIA OSOA!**



**ANGEL**


HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59




S.M. Ascension plazan Santutxu



E R T O N

D U G





**TASIO ERKIZIA**

**«NORTASUN  
EUSKALDUN ETA  
ABERTZALEAREKIN EZ  
NAIZ ARROTZ  
SENTITZEN EUSKAL  
HERRIKO INONGO  
LEKUAN»**

☞ Arrate Diaz

*Mahatserriko pertsona guztiek entzun izan dute noizbait Tasio Erkiziaren izena. Batzuek euskarazko irakaslea izan zutelako 70. hamarkadan, beste batzuek, aldiz, Karmelo Ikastolako beren irakaslea izan delako, edo ta Herri Batasunako mahaikidea izateagatik orain urte bi atxilotu zutelako. Baten batek oraindik nortaz ari garen ez badaki ere, Lesakan jaio eta Santutxun paratu zen bertsozalea dugu Tasio. Uztailean gartzelatik irten eta inoiz baino ilusio handiagoz bizi izan du gartzelan bere kideekin batera Euskal Herrian abian jarri den prozesua.*

**Lesakarra izanik nolatan bizi zara Santutxun?**

Hemeretzi urte nituenean seminarista izanik lantoki berri batera etorri nintzen lanera eta bertan bi uda jarraian egin nituen lanean. Geroago, bi seminarista lagunekin Peñaskalen bizi izan nintzen urte batzuetan, beste

fabrika batzuetan lan eginaz. Peñaskalen gustura nengoen, baina hutsune nabarmen bat nuen barnean, inguruan ez baiteukan euskaraz norekin mintzatu. Euskara falta horrek izugarritzko egonezina sortarazten zidan eta Santutxura hurbildu nintzen, banekielako hemen jendeak euskaraz

gehiago mintzaten zela eta Santutxuko giroak berehala lotu ninduen eta bertan geratu nintzen. Hasieran lagun koadrila bat egon ginen pisu alokatu batean; denak seminaristak ginen eta sei-zortzi lagun ginen guztira. Garai hartan euskarazko klaseak ematen hasi ginen Karmelo Eleizan, eta geroago Karmelo ikastolako gurasoei ere. Beraz, lehenengo txertatze hori euskarazko klaseen bidez izan zen. Handik bi urtera hainbat pertsona bildu ginen eta Karmeloko Gau Eskolak sortu genituen. Gau eskola horiek oso arrakastatsuak izan ziren eta 70. urtean mila pertsona

zeuden euskaraz ikasten Santutxun.

**Nongoa sentitzen zara?**

Oso zaila da esatea lesakarra edo santutxuarra. Ni euskal herritarra naiz, nire sustraiak Lesakakoak dira, beraz, lesakarra naiz, baina hainbeste urte Santutxun biziz gero, Santutxu eta Bilbo ere, neure herrizat jotzen ditut. Nire nortasuna euskaldun eta abertzale gisa definitzen dut eta bertan erroturik ez naiz arrotz sentitzen Euskal Herriko inongo lekuan.

**Ze aldaketa nabarmendu duzu auzoan Santutxura heldu zinenetik?**

Aldaketa nabarmenak egon dira bai onerako zein ez hain onerako. Aldaketa nabarmenak onerako, adibidez, euskararen aldeko eta euskal kulturaren aldeko mugimendua Santutxun asko gorpuztu dela. Betidanik, Gaztedi inguruan bazegoen grina hori eta geroztik, hiru ikastola sortu dira eta lan asko egin da euskal kulturaren alde. Bestetik, Santutxun auzo sentimendua nahiko zabaldua dago, eta hau ez da berez sortu. Hemengo urbanismoak, hain zuzen ere, ez du batere laguntzen auzo kontzientziaren sorkuntzan. Gainera, ez dago plaza zentralik, ez dago gune egokirik jendea santutxutar sentitzeko, ezta aktibitate berezirik era horretan. Beraz, Santutxun auzo sentimendua baldin badago, batez ere, Auzo Elkarteak eta beste hainbat elkartek egindako lanari esker izan da. Santu-



txun bizitza soziala dago nahiko emankorra dena eta batugilea ere. Bizitza sozial hori sektore batzuen inguruan gorpuztua dago.

Alde negatiboa, dudarik gabe, Santutxu zementozko monstro bat bihurtu dela da. Gainera, Santutxun bizi garenon kontura hainbat aberastu dira konstrukturak, nahiz eta bere garaian asko borrokatu genuen praileen baratzetan plaza bat eta amankomunean bizitzeko gunea sortzeko. Horren ordez, etxebizitzak besterik ez zituzten eraiki azkenean.

Santutxu, nire ustez, Bilboko auzorik onena da, baina horrelako sarraski urbanistikoak ez dio utzi Santutxuri auzo benetan polit bat izaten.

**Ze aldaketa ikusten duzu Euskal Herrian azken aldiz, gartzelara sartu eta ateratzarenetik?**

Azken bi urte hauek Basauriko gartzelan egon garenez, hurbil-hurbiletik bizi izan dugu Euskal Herrian abian jarri den prozesua. Ez bakarrik bertako komunikabideak irakurri eta entzun ditugulako, baita senide eta lagunekin harreman oso estuak mantendu ditugulako ere. Ilusio izugarritz bizi izan dugu prozesua. Niretzat, Lizarra-Garazi sinatu zen eguna, nire bizitzako egunik zorionsuenetakoa izan zen. Gartzelan egon arren ere, azken urteetako ametsa nolabait gorpuzten ari zela ikusi nuen. Beti pentsatu izan dut indar politiko, sindikal eta sozialak biltzea behar-beharrezkoa zela. Orain arte ahalegin asko egin arren ez da posible izan. Orain, ordea, faktore askoren ondorioz, eta jende askoren bizitzari, lanari eta sufrimenduari esker elkartasun hori oso zabala izateko unera heldu gara. Hau urrats

izugarria da aurrera begira, beraz, oraindik etorkizunaren oinarriak bakarrik jarri ditugu, oraindik ez dugu etorkizuna gure esku, baina oinarriak jartzea eta bidea ongi hartzea oso inportantea da. Oraindik emendi tontorra, hau da, gure askatasuna eta independentzia alor guztietan, oso urruti daukagu baina bidean goaz. Horrez gain, oso garbi daukagu zein izan behar den tontorrera heltzeko bidea. Hala ere, oraindik bidegurutze asko aurkituko ditugu, oztopo izugarriak ere izango ditugu bidean, aldapa oso latza izango da eta izerdi asko botako dugu bidean, baina ondo bideratuta gaude eta tontorra non dagoen ikusten dugu.



**Behin baino gehiagotan gartzelan egonda, zer da gartzelak erakutsi dizuna?** Batez ere gauza bi. Batetik, kanpoan presoekiko dagoen elkartasuna bizi izatea. Hau oso aberatsa eta indar berrigarria da presoentzat. Eta bestetik, norberaren motibazioa ilusioz aprobetxatzea. Batetik, kanpoko familiak, lagunak, auzoak eman didaten solidaritatea niretzat oso aberasgarria izan da, honek indarra ematen dizu eta zeure buruari bakarrik ez zaudela esaten diozu, hau da, nire borroka ez da borroka galdua, baizik eta martxan dagoen herri baten zereginen nago.

Bestetik, kartzelak ez dizu inolako motibaziorik ematen kartzelak zure nortasuna ahuldu nahi du, eta anulatu egiten zaitu pertsona moduan. Beraz, egoera honek zure errekurtsioak erabiltzen era-

kusten dizu, zure denbora planifikatzen, eta herriarekiko duzun lokarri hori aprobetxatu behar duzu egunero bizi-tzeko eta lan egiteko, ikasteko, idazteko... Dudarik gabe, gartzela oso latza da baina gartzelak neurri batean aberasten zaitu eta garai hortatik ere bere alor onak atera behar dira.

**Zer da auzotik gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?** Gutxien gustatzen zaidana sarraski urbanistikoa da, eta euskaraz hitz egitea eta elkarren arteko elkar ezagutzea da gustokoen dudana. Hemen komunitate bat osa-

tzen dugu eta egunero auzotar sentimendua sortzeko hainbat ekitaldi dago, beraz, egunero sentitzen duzu elkartasun hori.

**Noiztik zara Santutxuko Bertso Eskolako kidea?** Betidanik izan dut bertsolaritza pixka bat lantzeko ametsa, baina inoiz ez dut astirik hartu horretarako. Duela lau urte Bertso Eskolara joaten naiz, baina ez oso sarritan, ahal dudanean bakarrik eta batez ere, afarietara.

Bertsolaritza lantzen 1997an atxilotu nindutenean hasi nintzen batez ere. Alcalá Meco-ko gartzelan pixka bat landu nuen, baita Basauriko espetxean ere. Bertsolaritza mundua oso esparru zabal eta aberatsa iruditzen zait, bertsolaritzatzen bitartez sentimenduak adieraz baitaitezke.

**Zer deritzozu gaur eguneko hezkuntza sistemari?** Gaur egungo hezkuntza sistema aldaketa sakon baten beharrean dago, nire ustez, egun dagoen hezkuntza sistema erreakzionarioa eta ez aproposa da. Erreakzionarioa finkatzen dituen baloreen arabera, oso balore kontsumistak eta atzerakoiak. Eskolak konpetitibitatea bultzatzen du eta horregatik hain zuzen da frakaso askoren iturria. Ez bakarrik frakaso eskolarraren iturria, baizik frakaso pertsonalaren iturria ere. Hezkuntza siste-

mak orohar oso gutxi lantzen du autodisziplina, ikasteko metodoak, eta oso gutxi laguntzen du pertsona bat autonomoa eta erresponsablea izan dadin. Hezkuntzak errotik aldatu behar du, irakasle asko ari dira lan horretan eta eskolak ilusioa erreku-peratu behar du.

**Hezkuntza bidez posible da gizartea aldatzea?** Hezkuntzaren bidez bakarrik ez da posible gizarte

aldaketa, baina hezkuntza lagungarri izan daiteke aldaketa prozesu batean, oso zaila baita gizarte aldaketa bat faktore bakar batean oinarritzea. Hezkuntzak eragin oso inportantea du etorkizunari begira baina ezin dugu hezkuntza hartu irla bat balitz bezala, hain zuzen hezkuntza ez baita eskolara mugatzen. Hezkuntza eskolaz gain, kaleak, auzoak, familiak ... osatzen dute, azken batean, hez-

kuntza bizitza osoa da. Betidanik pentsatu dut hezkuntza oso lan erakargarria eta izugarri polita dela eta polita bezain zaila ere iruditzen zait. Gizarte honek esaten dizu balore batzuk landu behar dituzula eta gero gizarteak kontrako baloreak ematen dizkigu, beraz ez da lan erreza. Dena dela faktore inportantea da etorkizunari begira eta beharrezkoa ere gizarte iraultzarako.

GALDERA LABURRAK

<p><b>Herri bat</b> Lesaka <b>Hiri bat</b> Bilbo <b>Idazle bat</b> Juan Mari Irigoien</p>	<p><b>Kantari bat</b> Benito Lertxundi <b>Bertsolari bat</b> Egaña <b>Bertsorik gogokoena</b> Amurizaren «Itsaso zatar dago» Zuk egindako bertso bat</p>	<p><b>Anuni</b> <b>Amets bat</b> Euskal Herri askatua <b>Mendia ala hondartza</b> Mendia <b>Mendi bat</b> Anie</p>
---	--	--

hartu bertonean etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertone aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digito): \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_

Sinadura




# Zer deritzozu " Bertoko" garagardoari?




**IZKO**  
( Santutxu )

Ondo, kuriosoa da hemen garagardoa egitea, beti atzerrikoak izaten baitira.

**IKER**  
( Txurdinaga )  
Oraindik ez dut probatu.



**SAGRARIO**  
( Santutxu )  
Etxekoa da eta, beraz, edan behar da.



**RAMON**  
( Santutxu )

Kojonuda! Euskadi osoan ez dago ni bezain beste edaten duenik.




**MIREN**  
( Santutxu )

Ez dut probatu baina ondo dago hemen egitea.



**PILI**  
( Santutxu )

Behin probatu dut, hasieran ez zitzaidan asko gustatu baina gero bai.




**TXABER**  
( Txurdinaga )

Ez dut probatu baina ondo iruditzen zait.

**BEA**  
( Santutxu )

Behin probatu dut eta ondo deritzot hemengo garagardoa izateari.



# MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

## Begoñako Anaitasuna urriko erromeriaren prestaketetan dabil

Begoñako erromeria urriaren 11an ospatuko da berriro ere. Horrela izan da azken hiru urteotan, 60 urteko etenaldia izan ondoren. Azken urteotan, erromeria herrikoia goa bihurtuz joan da batez ere Begoñarren artean, nahiz eta kanpo-ko jende askok parte hartu. Begoñako Anaitasunak gazteak erakartzeko apostua egin du. Horrela, aintzina Errepublikan izandako auzoan egiten zen ohitura zaharra berreskuratu dute: baselizaren irteeran umei txokolata ematea. Laz, 8.000 txokolatina banatu zituzten. Nahiz eta xehetasun batzuk zehazteko geratu, hurrengo Urriko erromeriaren edukina osatua dago. Goizean, umeak alaitzeko gune bat irekiko da Gargantua eta guzti. 12.30tan Udal-bandaren kontzertua hasiko da Juan XXIII. Bazkaria,



Begoñako baselizaren inguruak jendez gainetza egongo dira Urriaren 11an.

Boulevard-ean ospatuko den anaitasun indaba-jana izango da. Arratsaldean, Bidebarrieta, Torre, Cintureria, la Cruz, Calzadas de Mallona, Virgen de Begoña kaleetatik zehar kalejira bat burutuko da bukaera elizan izango duelarik. Bertan, Begoñako Andra Mari abestuko

da. Ondoren, Astondoa pirotekniaren soinu traka bat entzungo da eta 21:00etan dantza abesbatza eta fanfarria talde ezberdinek baselizaren inguruak alaituko dituzte.

## AEK-N MATRIKULAZIO KANPAINA ZABALDU DA

Gure inguruan ugaria da txikitan euskara ikasteko aukerarik izan ez eta, euskara ikasten nagusitxoago hasi direnen jende kopurua. Horiengana guztiengana zuzendu nahi dugu oraingoan. Mahatserri euskaldun batean bizi nahi badugu behintzat, beharrezkoa da euskaraz bizitzea. Horrek esan nahi du, guztiok euskaraz hitzegin behar dugula. Euskaraz mintzatzeko zailtasuna edota ezintasuna dutenak beraz, gure hizkuntza ikastera bultzatu nahi ditugu hemendik. Gogoratu, AEKren matrikulazio kanpaina martxan dagoela, eta datorren hilean hasiko dela kurtsoa bertan. Beraz, animo lortuko duzue eta!

## HAURRIK EZ ZUMALAKARREGIN

Hau da Hezkuntza Saitetik Zumalakarregi eskola (Reman-Sarrrikue) ixteko eman duten arrazoia: hizkuntza eta hezkuntza eredu banaketa egin zenetik haur kopuruaren jaitziera nabarmena izan da, gako nagusia datza eskola honetan A eredu soilik egotean, inguruetakoko umeak Zurbaranbarriko ikastetxera (B - D ereduak) edota beste batzuetara doala. Zer egingo da ikastetxean datorren ikasturtean? Auzokideek proposamenak egiteko asmotan dabilta lokalak auzorako izan daitezten.



Txurdinagako eskailera hauetan erori zen emakumea.

### Kalean orkatila apurtu eta gero indemnizazioa jaso

Bilboko Udalak, 804.465 (interes legalez gain) pezetako indemnizazioa ordaindu beharko dio, erabilera publikoko eskailera batzutan orkatila apurtu zuen emakume bati.

Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren sententzian agerienez, Udalak ez zuen bete bide publikoak egoera onean mantentzearekiko betebeharrak. Honen adibide gisa, espedientean ageritako argazkiak eskailera egoera tamalgarririk zeudela frogatzen du.

1993ko Martxoaren 10ean Txurdinagako emakume honek erorketa bat sufritu zuen bere etxea eta Txomin Garat kalea lotzen dituen eskaileretan. Honen ondorioz, emakumea 3 hilabetez egon zen baja orokorrean eta ondoren errehabilitaziozko 16 aste gehiago behar izan zituen guztiz suspertzeko. Sei urte igaro ondoren emakumeak dagokion indemnizazioa jasoko du.

### Zirku mundiala Etxebarria parkean


Urtero egin ohi den bezala, aurten ere, Bilboko aste nagusiarekin batera barraka gunea eta zirku mundiala Etxebarria parkean kokatu izan dituzte.

Orotara 20.000 metro karratu betetzen dituen gunean, kupula borobila eta 2.000 besaulki izan dituen karpaz gain, hainbat atrakzio, etxola, mesoi etab. ezarri dira bertan. Zirku honetara jende eta ume ugari izan dira; Athletic-eko jokalaririk batzuk ere hurbildu izan dira; besteak beste, Imanol Etxebarria, Javi Gonzalez eta Josu Urrutia.

Zirkuak, Abuztuaren 14tik Irailaren 5a arte iraun du Etxebarria parkean.

### SARRIKUE AUZOKO SARRERAKO LANAK

Geldiro-geldiro doaz autobusa sartzeko ahalbidetuko duen errotonda berriko lanak. Udaberri hasieran ekin ziotenetik lau hilabete igaro dira dagoeneko, eta ia itxura berdina dauka egun. Hauteskundeetarako amaituko ete dituzte? Apostuak onartzen dira.



**jo ta ke**  
**Otxarkoaga**  
**euskaldundu arte!**  
**Pa... Yak baditu alternatibak**  
*demokratikoak noski!!*

Biktimenganako Laguntza Zerbitzua      Servicio de Asistencia a la Víctima

**Zeurekin gaude**

---

EUSKO JAURLARITZA      GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lanbideetarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia



## Jaiak joan zaizkigu baina...

Joan zaigu uda, eta udarekin batera gure auzoetako jaiak ere igaro dira. Berriz ere kurtsoa hastearrekin batera eguneroko zeregin eta errutinara itzuli beharrean gara gehienok, baina beti dator ondo festetan zeinen ondo pasatu dugun gogoratzea. Izan ere, oroimen on horiek aurpegira irribarretxoak ekarri eta poztasuna ematen baitigute. Orrialde honetan beraz, Mahatsberriko zenbait jaitako argazkiak bildu nahi izan ditugu, oroitzapen onak lan gogorari ekiteko indarrak emango dizkigulakoan. Bestela, datorren urteko oporretan pentsatzen hastea ere, ez da erremedio txarra izaten, ezinbestean.

Hemen ditugun argazkiak, Santutxuko jaietakoak, Zurbaranbarriko jaietakoak eta Otxarkoagan egiten duten Justugunekoak ditugu. Aurten, Txurdinagako jaietako argazkirik ezin izan dugu ekarri, auzokide batzuren kexuak zirela eta, bertan behera geratu baitziren. Ia ba datorren urterako konponbideren bat aurkitzen duten eta denek disfrutatzeke moduko jaiak antolatzen dituzten.

Bien bitartean, urtebete jaien zai egoteko gai ez direnentzat beti egoten da aukeraren bat. Oraindik ere, inguruko zenbait herritan jaiak iristear daudela gogoratu, eta ondo ibili!



E R R I K A R I A

E R R I K A R I A



# Udalekuak



## ☞ Irune Berro

Urtero bezala, aurten ere asko dira hamabostaldia ahaztezin bat igarotzeko asmoz motxilak hartu eta udalekuren bate-tara joan diren umeak. Era askotako udalekuak ditugu aukeran, itsasoan egiteko ekintzak nagusi dituztenak, mendia ardatza dutenak,... Baina era berean denek eskaintzen dute aukera paregabea adiskide berriak egiteko, leku desberdinak ezagutzeko eta malabareak eta txontxongiloak bezalako tailerrak egiten ikasteko.

Hasiera ez da samurra izaten. Baliteke gure laguna gurea ez den beste talde baten egotea edota bat-batean etxeok izugarri faltan sentitzea. Hala ere bigarren egunerako adiskide berriek egokitzen dute lehengo eguneko lotsa

guztia.



altuenean gaudela ematen du. Bertatik, nahiz eta Nafarroan egon Kantauri itsasoa ikusten dugula iruditzen zaigu.

Aterpera jaitsi eta afaldu ahal izateko mila

Mendi ikaragarri altuak igotzen ditugu eta hauek itzala ematen duten zuhaitzez betarik egon arren, kasualitatea! guk jarraitzen dugun bidetik ez dago zuhaitzik. Eta hori gutxi ez balitz apenas dugu urik edateko taldeko begiraleari botilak betetzea ahaztu baitzaio, hau desastrea!

Helmugara iritsi eta konturatzeko gara benetan merezi izan duela horrenbeste ibiltzea. Euskal Herriko mendirik

kanta abestu behar izan ditugu. Betikoak, "Afaldu nahi dugu /afaria delako/ gosearen kontrako/sendagarria la la la...". Eta dena gustuko ez dugun arraina jateko, eta ez pentsa, ez! aldamenean ditugun begirale hauek dena janarazten digute!

Azkenik eta oheratu baino lehen, gaubela. Hau da seguruenik eguneko momenturik goxoena. Taldeka antolatu eta playback-ak, antzerkiak,... egiten dira. Atzo udalekuko bost mutilik salseroenak Back Street Boys-ena egin zuten eta gaur beste batzuk atera dira gitarrekin batera zenbait kantu herrikoi abestera. Biharko, begiraleek zerbait prestatu omen dute, eta etzi gure taldeko Garaziri sorpresa-txoren bat eman beharko diogu bere urtebetetzea baita.

Ondoren ohera. Ez dago jainkorik gu ixilduko gaituenik, edo hori diote begiraleek behintzat. Hala ere gaur ez dugu horrenbeste zaratarik egingo. Gaurko eguna gogorra izan da eta aurpegi nekatuak antzematen dira. Eskerrak biharkoa egun lasaiagoa dela, piszinetara egunpasa eta gauean dantzaldia. Jadanik gehiago ezagutzen dugu elkar eta oraingotan seguraski denak batera, neskak eta mutilak,



dantzatzeke gai izango gara.

Horrela dira udalekuak. Baina xarma bitxi bat behar dute izan azkenengo egunean ume gehienak autobusa hartzerakoan aurpegia malkoz beteta edukitzeko. Eta artean begiraleok asetasun berezi bat nabari dugu gure baitan.

**Baserritik**  
etxerainoko  
**OKELA ZERBITZUA**  
Eskaearak egiteko:  
- Telefonoa eta Faxe: 94 433 48 02  
- Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara eta  
16:00etatik 19:00etara  
**E.H.N.E.**

**MENDIA**  
**BILBO 82**  
Santutxuko poteo gunea

**DAYTON**  
Reagge-festa  
taberna  
Santutxuko poteo gunean

**MESÓN**  
**TURETXE**  
Santutxuko poteo gunean

**GANAN S.C.L.**  
**LAN BERTIKALAK**  
Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa  
**ANDAMIO BARIK**  
Telefonoa:  
(94) 669 32 79  
Mugikorra:  
908- 45 16 22

## BEGOÑAZPI IKASTOLA 30.GARREN URTEURRENEAN INOIZ BAINO HANDIAGO, INOIZ BAINO GOGOTSUAGO

Begoñazpi ikastolak aldaketa handiak izan ditu sortu zenez geroztik, bi milagarrenaren atarian gauden honetan, baina, Begoñazpi izango dituenak ez dira makalak izango.


Ikastolak 1991 arte OHOk taldeak baino ez zeuzkan, baina ikasle horiei segida emateko beharra ikusi zuten, beraz, eraikinean lan batzuk egin ostean BBBko ikasleen ikasbidea zabaldu zuten. Urte batzuk geroago, erreforma zela eta, sortu zitzairen egoera berriari aurre egin nahian beharren hasi ziren, beraz, ikastolak premiazkoa zuen handitzea zelari gauzatu aztertzeari ekin zioten. Lehenengo proiektua gaur egun ikastola dagoen lekutik ezker-raldera egitekoa zen. Horretan hasi zirela, abagune ezin hobea egokitu zitzairen, ikastolaren atzean dauden trinitarien lurrak eta hiru eraikinak erosteko, hain zuzen ere. Azken aukera hau hobetsi zuten eta dagoeneko lehenengo eraikineko barru guztia bota dute eta haur hezkuntzarako egokitu. Beste eraikin biak urte bi barru amaitzea espero dute. Bertan bigarren hezkuntzako ikasleak eta batxilergokoak izango dira. Hau guztia amaitzen dutenean oraingo 7.000 m. koadroetatik 20.000 m. koadroetara pasako dira.

Trinitariak, berriz, euren egoitza ikastolaren ezkerrean egingo dute, ikastolaren lehenengo proiektua egiteko zen lurretan, hain zuzen ere.

Begoñazpi ikastolak beste proiektu handi bat dauka ikasturte honetan gauzatzeko, kiroldegia. Inguruan kirol ekipamendurik ez zegoela ikusita eta ikastolak berak bere hezkuntza proiektua aurrera eramateko kiroldegiaren ezinbestekoak jabetuta kiroldegi estalia eraikiko du ikastolaren aurreko aldean eskumaldean. Igazko ikasturtean amaitzeko egon bazen ere udaleko teknikariak ze nolako urbanizazioa egin behar zen argi ez edukitzeak atzeratu egin ditu hasierako lanak.

**IKASTOLAREN 30 URTE** Frankismoaren garai beltzenera Santiagoko parrokian eta Banco de España kaleko etxe baten lehenengo ikasleak hasi zirenetik Karmelo kaleko hamahirura, Santutxuko Asuncionisten komentura aldatu ziren arte hamaika neke jasan izan behar izan zituzten. 70. urtetik 81. urte arte Begoñazpi izenarekin bertan egon ziren baina gero ikastola txiki geratu zitzaizela eta ikastola berria eraiki zuten gaur ezagutzen dugun lekuan. Bilboko ikastolen hasieraz eta Begoñazpikoaren sorreraz datu gehiago jakin nahi izanez gero ikastola bere 30garren urteurrena ospatzeko prestatzen diharduen liburuan aurkituko dituzu. Bizkaia irratiko kazetaria den Dorleta Alberdi arduratu da eginbeharreko elkarrizketak eta abar egiteaz. Urtemugaren ospakizunak direla eta maiatzaren amaieran ikastolaren egunarekin batera, Euro-camps izeneko programaren barruan, 5 herrialdeko ikastetxeko ikasleak bertara etorriko dira egun batzuk ematera. Beraz Finlandia, Txekia, Austria, Italia eta Ingalaterrako gaztetxoak bertatik bertara ikusiko ditugu geure herria ezagutzen. Hala ere jakinaren gainean izango zaituztegu.

*Irakurri duzuen legez bederatzirehun ikasletik gora dauzkan Begoñazpi ikastolak asmo handiak dauzka hurrengo bi urteotan gauzatzeko, pozez eta atzarri dabil beharrenean. ZORIONAK*



Jose M. Ziarrusta  
Begoñazpi Ikastolako zuzendaria

Pertsonaia batek esaten eban aurrikustea oso zaila dala eta etorkizuna bada are zailagoa. Ez dakigu etorkizunak zer ekarriko deuskun, baina badakigu zer gura dogun.

Europa errealtate bihurtzen ari da eta gure bizitzako arlo guztiak kontextu barri honetara moldatu behar doguz. Gizarte, politika eta ekonomia harremanetan esparru barri bat sortzen dabiltz. Zer egin daike hizkuntza minoritarioa dauan herri txiki batek Europa haundi baten? Gure Ikastolaren lanak, zeinek izan behar dau?

Ikastetxeetan geroko gizon eta emakumeen heziketaz arduratzen gara eta horregaitik batzuek uste dabe euskerea eta euskal kultura gauza polit bat da. Ia ume txiki-txiki baina balio gabekoa. Ikastolan ordea, beste era batera pentsatzen dogu. Alde batetik euskera zabaldu eta gure herriak euskaldundu egin behar doguzala gure hizkuntza herriaren ezaugarri bat izan daiten. Horren ondorioz euskera tresna baliagarriagoa bihurtuko da eta konpetibitate faktore bat ere izango da, adibidez, euskal justizia bat behar badogu euskaldun juezak beharko dira. Nahiz eta Europako biztanle guztiak eskubide bardinak izan Finlandiako juezek finlandieraz jakin beharko dabe. Bestalde euskal kulturaren barnean euskal nortasuna daukagu eta gure herriak daukazan baloreak ere mantendu behar doguz; ezin dira urtu berezitasun gabeko eta klonikoz betetako gizarte baten. Edozein tokitan norbera izatea langorik ez dago. Herri baten nortasuna milaka urtetan egiten da eta ezin da itzi haize batek urte batzuetan eroatea.

Baina zabalak ere izan behar gara. Gu geu izanda badaukagu besteengandik zer ikasi ere, Europako beste herriak harreman estuak izan behar doguz, gure ikasleak europarrak sentitu behar diralako eta aurreratuenek beste izaten ikasi behar dabelako. Horretarako atzeritar hizkuntzak menperatu eta teknologia eta teknika barriak ere ezagutu behar dira. Berrikuntzak barneratu behar doguz gure eginkizunetan eta kalitateak gure gestioaren estrategia izan beharko dau.

Erronka ez da txikia, baina etorkizuna egiten ari gara eta hori da Begoñazpi Ikastolatik ere landu nahi doguna. Gure ikasleak europar hiritarrak izango dira eta gure ahalegin guztien helburua euren heziketa integrala lortzea izan behar da, lehen aipatu doguzan arloetan ekin beharko dogularik. Horretarako gure Hezkuntza Proiektu berezia.

Bilbon, 1999.eko irailaren 10ean.

**INMOBILIARIA**  
**Gelaya**  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA -  
SALMENTA - ALOGERAK - ...  
Iturriaga, 92  
Tfona. 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

**BASTERTXU**  
  
**TABERNA**  
Ricardo Bastida plaza

**ekilore**  
Iturriaga, 92 Santutxu

**Bikotz**  
ARROPA ★  
ZILARRA ★  
OPARIAK ★  
Dart Arsuaga SANTUTXU  
Tel. & Fax. 473 42 88 • 48004 BILBO

**Otoio**  
**Mendi**  
Sta. Klara

**KIKU**

# KARMELOKO NESKEN ESKUBALOI TALDEAREN IBILBIDE BERRIA

☞ Itxaso Perez



Eskubaloia orain gutxi hasi da ezagunagoa izaten, baina gehien ikusten dena gizonekoena da, kirol gehienetan gertatzen den legez. Gure inguru ez da salbuespena honetan, bakarrik ikusi behar da zenbat neska aritzen den kirol honetan, edota zenbat talde dagoen Bilbon, adibide hurbil bat ipintzearren.

Gaztetxo mailan ikastetxe askotan dago talderen bat, baina gazte mailara, hau da, 14-15 urtera iristen denean, orduan gauza konplikatuak da, ikastetxean jokatzeko talderik ez dagoelako, ikasketak "gogorragoak" izaten hasten direlako, ... hainbat arrazoi direla medio nesken taldeak urrituz doaz.

Gure alde honetan, Begoñan, Santutxun, ... garai batean eskola askotan zeuden taldeak. Egun Mikaela ikastetxean eta Karmelo ikastolan, baina derrigorrezko ikaskuntza amaitutakoan beste nonbaitera joan behar dira, jokatzeko jarraitu gura badute.

Bilbon eskubaloiko nesken klub bakarra dago gaur egun: San Adrian E. T., eta izenak adierazten duenez, San Adrianen du egoitza eta jardueraren gunea.

Pasa den denboraldian Karmelo Ikastolako eskubaloia taldeko neskek, entrenatzaile barik geratzen zirela eta, klub honetara agertu ziren, kadete mailan arituz. Bilboko beste neskekin batera, baina funtsean, Karmelotik etorritakoez osatutako taldeak denboraldi bikaina osatu zuen, suertatu zitzaion multzoko ligan bigarrenak geratuz. Ondoren, kopako txapelketan, ez zuten lortu erdifinaletan sartzea, baina gogor borrokatu zuten, batez ere arbitroen "aurka", eurek dinotenez.

Aurten jubenetara igaro dute, eta kategoria aldaketa igerri ere egingo dute, zalanta barik. Baina gogo ez zaie falta eta, ziur, ia bezain ondo arituko direlakoan gaude.

***...funtsean, Karmelotik etorritakoez osatutako taldeak denboraldi bikaina osatu zuen, multzoko ligan bigarrenak geratuz***


# Herri kirolek izan dute lekurik gure jaietan

Uda aldean ikasturteak edo eta lanaldiak atsedean hartzen duen era berean, kurtso osoan zehar txapelketa eta entrenamenduan ibiltzen diren kirol taldeek ere atsedean hartzen dute. Baina horrek ez du esan nahi kirol gutxiago egiten denik. Gertatzen dena da, beste kirol mota batek hartzen duela lekua, eta gehienetan jai giroan egiten direnak, gainera. Baina ez gara uretako kirolez arituko. Zertaz ari gara, orduan? Goitibera txapelketaz hitzegin dezakegu, edo jaietako kuadrilen arteko txapelketaz, edota herri kirolez.

Oraingoan, herri kirolez hitz egingo dugu, pixka bat, behintzat. Edonork jakingo duen bezala eta izenak berak adierazten duten bezala, herritik sortutako kirola da; aintzina, herri xumetik sortua. Baserritarrek lan egiteko erabiltzen zituzten probak, apusturako erabiltzen hasi, eta kirol izaten amaitu zuten, lehen lana zirenak.

Gaur egun, jaietan ikusten dira gehien bat herri kirolak, bai lehia gisa eta bai erakusketa gisa. Txingek, arto bilketa zenak, aizkolaritzak trontzalaritzak, soka tirak... jai guneetan izaten dute lekua gehienbat. Halere, badaude horretan aritzen diren kirolari profesionalak, nahiz eta beste kirol batzuei baino garrantzi gutxiago ematen zaien. Horra hor munduko sokatira txapelketak, adibidez.

Gure auzoetako jaietan ere ikusi edo eta parte hartu ahal izan dugu antzinako usadioa diren herri kirolean, eta horren lekuko dira Zurbaranzarriko jaietan aterako argazki hauek. Kasu honetan, kirolean aritzen diren profesionalak bota zuten izerdia, gainontzekoek haien ahalegin eta teknikak ikusiaz gozatzen zuten bitartean. Hauek ere merezi zuten lekutxo bat gure artean, urte osoan zehar ez baitiegu arreta handiegirik ematen.



**Zure  
publizitatea hemen**

**9 4 4 7 3 5 4 4 8**



## ARTELANAK ERAKUSGAI LANBROA TABERNAN

*Auzoko artista ezezagunen  
lanak jendearengan inoiz  
baino hurbilago*

Arrate Diez

Karmelo Elizaren atzeko aldean dagoen Lanbroa tabernan inizatiba kurioso eta guztiz aberasgarria jarri dute martxan. Mahatserrian bizi den hainbat artistaren lanen erakusketa da hain zuzen aurrera atera dutena. Inizatiba honek urte bat darama praktikan eta bai tabernarentzat zein artistentzat benetako inzentiboa bihurtu da.

Lan bakoitzaren erakusketa hilabete ingurukoa izaten da tabernaria eta lanen egilearen arteko akordioaren bidez. Erakusketaren xedea artisten lanak auzoan ezagutzera ematea izaten da, eta jendeak kuriositate handiz begiratzen die, askotan egilea nor den ere jakin barik.

Tabernariaren esanetan egileen artean denetarik aurki dezakegu; batetik, arte ederretako ikasleak eta bestetik artelanak egiteko afizioa duten pertsonak ere. Bai batzuen zein besteen helburua antzekoa izaten da, hain zuzen, beren lanak kalera ateratzea eta jendearen jakinmina piztu nahi dute. Aurkezten diren lanei irtenbide ezberdinak ematen zaizkie, hala, alde batetik, interesatuta dagoenarentzat lan batzuk salmentan daude, eta beste aldetik, zozketak egiteko ere erabili izaten dira auzoko beste edozein talderen diru iturri original modura.

Bitxikeri bezala Lanbroako tabernariak dioe-

nez, behin gizon bat agertu zen tabernara erakusketa ikusteko asmotan bere semearen lagun batek egindako lanak zirelako. Era honetan, arrazoi bat edo beste dela medio, jende asko hurbiltzen da Lanbroa tabernara erakusketaren berri izateko.



### TABERNAK KULTURGUNE

Ekimen honekin gizarteari, orohar, erakutsi nahi zaio, besteak beste, tabernak kulturgune aproposa izan daitezkeela. Artistak duen ilusioa eta imaginazioa ere ikusleari transmititu nahi zaio, gero norberak bere iritzi eta proposamenak eduki ditzan. Orain arte material ezberdinez egindako esposaketak egon dira ikusgai, hala, kuadroak, argazki muntaiak, zein pirografiak eta oso harrera ona eduki dute jendearen artean. Egun hauetan, bereziki, kauadro abstraktoak daude ikusgai eta aurre-rantzean komikiak eta akuarelaz egindako lanak ikusteko aukera paregabea izango dugu. Orain arte horrelako ekimenak beste taberna batzuetan ere izan dira eta nahiko arrakastatsuak gainera. Lanbroan egin den azken erakusketa argazki muntaia izan da, begi itxurako argazki muntaia barnean difuminatuirik jendearen aurpegiarekin, benetako lan original eta harrigarria izan da tabernariaren esanetan.

Esposaketa honek itxura ezberdina ematen dio ohiko tabernari, lan hauen esposaketen bidez artisten lanak jendearengana hurbiltzen dira modu ez ohizko baten bidez eta ez da museotara joan behar artea ezagutzeko. Artelan hauen autoreek orokorrean ez dute lekurik gaur egungo gizarteak eskaini nahi digun artean, hain zuzen, gizarteak artea negozio moduan besterik ez baitigu eskaintzen. Artea egitearena jainko zein jainkosen kontua besterik ez dela adierazi nahi digute, eta Lanbroan aurkezten dutenek, ordea, guzti honekin apurtu nahi dute. Beraz, ekin diezaiozun artistaren mitoari eta apur ditzagun artearen mugak imaginazioari heltzeko!



ZURE  
PUBLIZITATEA  
HEMEN  
94 473 54 48



ASAPALA  
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon  
topagunea eta elkarte  
egin guran gabiltza

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu,  
batu gurera!

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org

# Arrazistak

Klase erdiko europar tipikoak, bera ez dela arrazista baieztatzen du, bere laneko beltz bakarrarekin ondo moldatzen baita. Baina bere enpresan mairu edo ijito bat kontratatatu eta sortzen zaion etsaigoa, asto baten arrantzaren parekoa izaten da.



**KUNTA KINTE!**

**NON DAGO KAFE HORI?**

**...MAJOA**

Tontakeria bat, nire ikuspegitik. Gainera, zer nahi duzu esatea, arrazista bat, arrazista bat da. Zurekin arrazista ez dena baina beste batzuekin badena, zurekin ere hala izango da berarekin arazoren bat duzunean.


*Zin nago euskaldun pista bat izango gurea...*



- ba. ez
- ...katalana? ez
- ...galiziarra? ez
- ...andaluzia? ez
- ...bosnia? ez
- ...erusiara? ez



Horiek, Jesukristo zuria zela uste duten berberak dira; Franco bizirik egongo balitz dena hobeto joango litzakeela uste dutenak; igandeetan mezetan faltzuki otoitz egiten duten berberak, eta gero bizkarrean zapaltzen zaituztenak.




- ESPAINIARRA
- KONTSERBADOREA
- KRISTAUA
- KATOLIKOA
- APOSTOLIKOA
- ROMANOA
- PUTAKUMEA

Frank Tren ahotsak kontatua

Beste aldea ere ager daiteke, zinikoez ezkututzen dutena. Horiek, topiko tipiko-etatik abiatzen dira, eta zera esango dute:

**BENO, NI EZ NAIZ ARRAZISTA EZ BELTZEKIN EZTA TXINATARREKIN ERE, BAINA MAIRUAK EDO IJTOAK EZ DITUT AUZOKIDETZAT ERE NAHI.**



上 等 中 等 下 等  
 好 吃 好 吃 好 吃  
 好 吃 好 吃 好 吃

Tonto, ahobero, lerdo horiek dira Jesus Gilek lanpostuak ematen dituela eta ona dela diotenak, eta faxista izatea ez dela txarra diotenak; fatxa izan zaitzke, eta era berean oso jatorria izan.




**neurona bakarra**



Horiek dira lau beltz ikusi eta zera esaten dutenak: "Hau plaga bat da", futbole-ra naziak balira bezala joaten direnak, eta gainera futbolaz ezer ez dakitenak.


**Doazela pikutara!** nazional-makarra horiek! Gainera ez dute banan-banan aurpegia emateko zuk duzun kemena.



Zorro

# Ungino (1094 m.)

Peña Angulotik



**A**rtzeniagatik igo ginen Peña Angulo mendate-raino(720 m.), han, mendatearen izenaren kartelaren ondoan utzi genuen koxea (A).

Ezker aldean dagoen hesi bat zeharkatuz pista zabal bat hartuko dugu pinu artean, eroso baina martxa jarraian hasiko gara igotzen.

Pinudia amaitu ondoren argiune bat dago, laster harizti batean sartuko gara, hariztia hasten denean ezker aldetik bide bat jaisten da amildegia- ren ondotik (8) koba handi batera doana, koba honetatik ura irteten da euri-garaian, eta apur bat beherago ur jauzia bihurtzen da. Guk geure bidea jarraituz antzinako otsategiaren aztarnak ikusiko dugu laster, otsategiaren horma nagusiaren ondotik jarraitzen du gure pista. Horma eta hariztia amaitzen direnean bidegurutzeta topa- tuko dugu (C).

Ezkerreko pista hartuta, alderdi zabaletik igoko gara pagadi txiki batera heldu arte; aipatu dugun bidegurutzetik honaino mugarri batzuk daude ezker aldean, zuriz margotuta eta ispilu batzuekin. Pagadia zeharkatu eta gero pista berberetik jarraituz beste aldapa bat gaidituko dugu lautada antzeko leku batean kokatze- ko, apur bat aurrerago gure pista utziz (D) ezkerretara joko dugu landan zehar, hurrengo pistan sartu arte.

Pista honetatik jaitziz pagadi eta bailara batera helduko gara, toki hau etxolaz beteta dago, hemen Añesetik Lorengosera doan pista zabala hartuko dugu eskuma alderantz, laster La Cobata izenez ezagutzen den aterpea (E) topa- tuko dugu; egarri bagara, pistatik bostehun metro jarraituz iturri ederra dugu, aska eta guzti, baina gure helburua lortzeko, aipatu dugun aterpetik ezkerretara joango gara landan zehar, laster beste pista batekin topo egiteko.

Pista honek Ungino mendipera eramango gaitu, Somo mendia (1170 m.)dagoen lepoa pasatu eta gero (erdaraz "collado del Lobo" edo «... de los Unginos» esaten dioten). Han, zuzen igota izugarrizko begizuloaren ondoan Ungino mendiaren tontorrean gara.

Igoera osoa bi ordu eta erdi.

**Bidean ikusi genituen zuhaitzak:**

- 700 metroraio: pinua eta haritza.
- 1090 metroraio: pagoa, elorri zuria haritza laharra eta gorostia.

## HOROSKOPOA

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.  
Betaurrekorik ez duzula behar, bai zera! Bi metro-ra ez duzu piperrik ere ikusten eta.
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.  
Daukazu beltzaren kolorearekin, uda honetan ez duzula ligatu, sinestezina!
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.  
Kolonia pixka bat botazea ez litzaizuke batere txarto etorriko. Zure ondoan ez dago egoterik!
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.  
Kostaldera gehiegi jotzen duzu azkenaldian, bada-kigu madalena zati bat han utzi duzula baina bueltatu lanera enpatxoa hartu baino lehen.
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.  
Udako klase partikularrek fruiturik ez? Bai zera! Klasekidearekin ligatu eta gainera protestaka
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.  
Bacalao musika gustatzen hasi zaizula? Hobe duzu bakailua pil-pilean jatea, baina perejil gutxi-ekin, noski.
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.  
Arotz lanetan hasi berria zarela? Kontuz mailuarekin, batez ere burutik hurbil duzunean. Faltatzen zitzaizuna gainera!
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.  
Telebista ikusten ordu pilo pasatzen duzula? Laukidun tramankulu horrek azkenean lau hankekin ibiltzera behartu zaitu.
- Sagitarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.  
Lanera joateko gogorik ez? Lasai, laster San Frantzizkoko zubia baino luzeago den bat dugu, motel.
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.  
Begetariano bihurtzeko asmotan, bai zera! Ea nolako hanburgesak jango dituzun orain.
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.  
Udako arropak gorputzean sartu ezin, eta neguan gimnasia? Burutik ez zaude sano.
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.  
Uda osoan musean eta orain matematikako eragiteka bat ere egiteko kalkulagailua erabili behar, koitxada!

## agenda

- Urriak 5: Urriko lehen asteleheneko azoka Gernikan.
- Urriaren 9tik 12ra Errozate mendira (1.345 metro) irteera, Beherobiatik hasita (iparraldea), Eguzki Lorea Boluetako Mendi Taldeak antolatutik.
- Urriak 11: Erromeria Begoñan.
- Urriak 13: Basauri eta Durangoko jaiak.
- Urriak 16: Arrastiko 4etan Bengalako Golkoko bidaiaren diapositibak eta kontuak, Kaiku tabernan (Arsuaga) Kepa Zamalloak kontatuta eta Asapala Kultur Elkartearen eskutik.
- Urriak 22: «Tasioren bertsoak kartzelan jarriak» eta musikatuak. Arratseko 8etatik aurrera, Santutxun (lekua oraindik zehaztu gabe dago).
- Urriak 25: **Gernikako jaiak.**
- Urriak 28: **Pakistani buruzko diapositiba emanaldia Santutxuko Herriko Tabernan, Artagan Kultur Elkarteak antolatutik. Santutxuko Mendi espedizio bati buruzko diapositibak. Arratsaldeko 8etatik aurrera.**
- Urriak 30: Usansoloko jaiak.



## KARTZELAKO LAGUNEI AGURRA

Doinua: "Mendian gora haritza"

Ezin esan biba, urra!!!  
izango nauzue zuhurra,  
hitz neurtua da onena eta  
gainera laburra.  
Presoak bizkar hezurra,  
ez da batere gezurra,  
horregatik oso zaila da  
neretzako agurra. (bis)

Bizkar hezurra zarete  
preso zaharrak ta gazte,  
eguneroko bizitzan hori  
ikusita daiteke.  
Borrokari hainbeste urte,  
dituzuelarik bete,  
beharrezkoak jadanik denok  
kalean ta aske. (bis)

Libre ta aske presoak  
nahi dituzte gurasoak,  
horixe bera aldarrikatzen  
du herri osoak.  
Kantauriko itsasoak,  
leizetako arbasoak,  
hiritako jendetzak gisa  
mendi ta basoak. (bis)

Presoa eta herria,  
ez da lotura berria,  
betidanik da oso estua  
bien lokarria.  
Berdina da uztarria,  
askatasun egarria,  
beraz, elkarrez egunsentia  
ta Udaberria. (bis)

Guk etxerako aukera,  
ta oso pozik gainera,  
baina sufritzen dugu benetan  
zuen egoera.

Nahi zaituztegu atera,  
berehalaxe kalera,  
Euskal Herria ereiki daigun  
guztiok batera. (bis)

Badator egunsentia,  
altxa burua maitia,  
kartzela ez da inorentzako  
toki egokia.

Harturik erabakia,  
atzetik herri guztia,  
urratsez-urrats lortuko dugu  
denon AMNISTIA. (bis)

Ez dugu bide erraza,  
memoria errepara,  
beti gisara, askatasuna  
da borroka latza;  
baina gu gara kapaza,  
ta hasia dugu martxa,  
presoak dira gure bihotza  
ta herri arnasa. (bis)

Tasio Erkizia  
Basauri, 1999-7-20